

Putin irabazle Errusiako hauteskunde plebisztarioetan

Bazirudien Mendebaldean errusiar fobiak ez zuela jada hazkunderako tarte handiagoa, baina ez, telebis-ta piztu, egunkari edo liburu bat ireki, telesail edo film bat ikusi eta hortxe jarraitzen du hazkunderan. Egokitasun politikoa zaintzen duten hedabideek eta erakundeek arrazakeria eta xenofobia maiz kritikatzeko dituzten bitartean, errusiar-fobia sustatu egiten dute tamalgarria den jarrera xenofoboarekin. Horregatik maite dute Alexei Navalny.

Vladimir Putin nazionalista bezala aurkezten badigute ere, Errusia Batua eta Putinen jarraitzaileak dira Errusiaren ikuskera multinazionala sustatzen dutenak nazionalisten aurkako diskurtsoarekin. Oro har, Putin abertzalea da, baina ez nazionalista etnikoa. Nazionalista etnikoak eta muturrekoak Putinen aurkakoak dira. Navalny mendebaldar zalea eta neoliberala izateaz gain, nazionalista errusiar arrazista da. Betidanik, bere apustuak izan da etorkinen aurkako diskurtsoa.

Navalnyren jarraitzaileek uste dute Errusiak europar nazio bat izan behar duela, kateak moztuz bere egungo izaera multinazional eta euro-asiarrekin, asiarrak eta kaukasiarrak ez dituzte gogoko, ezta musulmanak ere. Errusia zuri eta europar batekin amesten dute. Badut lagun bat Navalnyren alderdikidea dena, eta oro har, berarekin hitz egitean progresista dirudi, nekazal gune eta probintzietako hiriburuak errusiarrei buruz mintzatzen hasten den arte. Ezjakinak eta atzeratuak direla dio. Azkenean, berotu ahala Moskuren independentzia eskatzen du. Funtsean pobreekiko mespretxua da. Gorroto hori areagotu egiten da etorkinei buruz hitz egiten hasten denean. Oraindik gogoan dut Parisera joan zenean bizitzera bidali zidan mezua: "Hau desastrea, Afrika ematen du".



Asier Blas Mendoza

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Putinek, Jeltsinek ez bezala, ez du iruzurren laguntza behar hauteskundeak erraz irabazteko. Gurean maiz pentsatzen denaren kontra, erregimen politiko baten legitimazio iturri nagusia ez dira bere prozedurak, emaitzak baizik. Erregimena izan demokratikoagoa edo autoritarioagoa, bere egonkortasuna eta legitimazioa batez ere emaitzen terminoetan neurtzen dituzte herritarrek

Zorionez Navalny eta haren jarraitzaileek duten babes txikia da oso. Moskun dira indartsuenak, baina urrun lehenengo indarra izatetik. Navalnyk ezin izan du lehiatu hauteskunde presidentzialetan kondenatua izan zelako iruzur fiskalagatik eta diru zuriketagatik. Halere, abstentziorako egin duen

deiak ez du arrakasta handirik lortu. 2012ko hauteskundeekin alderatuta partaidetza Errusian %2 igo da (orotara %68,5) eta Moskun %1,7 (orotara %59,86). Putinen babes hiriburuan ikaragarri zabaldu da, %70,88ra iritsiz.

Putinek inoiz hautagai presidentzial batek atera duen boto kopuru handiena atera du (56 milioi pasatxo) eta babes erlatibo handiena (%76,6). Sobietar Batasuna desagertu ostean Errusian ez dira egon hauteskunde presidentzial lehiakorak, beti izan dira plebisztarioak. Hau da, presidentek hauteskundeetan bere jardura politikoarekiko babes neurtzeko baino ez dute balio. Babes zabala lortuz gero presidentek bere ildo politikoa indartuko du eta babes estuagoa bada aldatzeko egingo ditu.

Putinek, Boris Jeltsinek ez bezala, ez du iruzurren laguntza behar hauteskundeak erraz irabazteko. Izan ere, gurean maiz pentsatzen denaren kontra, erregimen politiko baten legitimazio iturri nagusia ez dira bere prozedurak, emaitzak baizik. Erregimena izan demokratikoagoa edo autoritarioagoa, bere egonkortasuna eta legitimazioa batez ere emaitzen terminoetan neurtzen dituzte herritarrek. Putinek sekulako buelta eman dio 90eko hamarkadan Errusiak bizi zuen egoera tamalgarriari. Garpene ekonomikoa, egonkortasuna eta segurtasuna eskaini dizkie errusiarrei. Halere, hauteskunde estrategian garrantzitsua izan da azpimarratzea aberriak Mendebaldeko herrialdeen partetik eraso bat bizi duela. Horri aurre egiteko batasuna aldarrikatu du, horregatik, oraingoan independente bezala aurkeztu da "alderdikieretatik aldentzeko". Aberriaren aitaren irudi horrek baina, iraungitze-data du 2024an. Inork gutxi jartzen du zalantzan, Jeltsinek egin zuen bezala, berak ere izendatuko duela bere ondorengoa. ■